



# KOSTUAK

7. Taldea  
Elaia Altuna  
Eneritz Higuero  
Enara Losada  
Saioa Martinez  
Nora Sierra

Gure enpresa aurrera eramateak kostu batzuk dakartza. Egin nahi ditugun prozesu guztiek gastu jakin batzuk sortzen dituzte, eta gure enpresak gai izan beharko du gastu horiei aurre egiteko. Hauek izan daitezke kostuen egituren ezaugarriak: kostu finkoak, kostu aldakorak, eskalako ekonomiak eta hedadura-ekonomiak.

Horrez gain, gure enpresaren kostuak minimizatzen saiatu gara. Alde batetik, kostu finko bakarra dugu, webgunearen hostinga, izan ere, Elaiaren amak utzitako bulegoan lan egingo dugu, eta bertan gure ekipo informatikoa erabiliko dugu. Bulegotik bezeroen deiak jasotzeaz gain, produktuari buruz dituzten zalantzak argitzeko prest egongo gara. Kostu hori 2000€-koa izango zela aurreikusten dugu.

Gainera, behin produktua prest dugunean, produktu bakoitza banan-banan bilduko dugu eta gure bezeroei bidaliko dizkiegu. Are gehiago, supermerkatu batek deitu lezake, eta eskatutako kantitatea emango genieke, haren betebeharrak asetzeko.



Bestetik, kostu aldagarriak daude. Gure enpresaren kideak erabili beharko dituzten materialen salmenta-bolumena aldakorra izango da. Produktuaren fabrikazio kantitatearen arabera, gehiago edo gutxiago ordainduko dugu (baliabide gutxiago edo gehiago erabiliko ditugulako).

Eskalako ekonomian, enpresa batek produkzio-gastuak murrizten ditu hedatzean. Egoera horretan, zenbat eta gehiago ekoitzi, orduan eta kostu txikiagoa du enpresak produktu bat fabrikatzeko. Hasieran, halere, inbertsio handi samarra beharko dugu enpresa martxan jartzeko, 8000€ inguru beharko ditugula kalkulatzeko dugu.

Ekonomiaren hedapena ziklo ekonomikoaren fase bat da, depresio batetik gailur batera igarotzean datzana. Gure enpresa depresio batetik pasako balitz, hoberena enpresaren funtzionamendua pixka bat aldatzea izango litzateke. Bereziki, inplikazio gehiago bermatzea, adibidez, marketing-aren arloan aldaketak egingo

genituzke, publizitatea hobetuz. Horrela, bezero berriak erakarriko genituzke eta gure betiko bezeroak mantenduko genituzke. Honek kostu extra bat suposatuko luke, publizitatean inbertitzeko (1000€ gutxi gorabehera).

Ondorioz, esan genezake, gure kostu totala 11.000€-koa izango zela pentsatzen dugu.